

## **Bikaintasun operazionalako eta negozio-hobekuntzako jardunaldia Orona Ideon**

2015/03/10

Bikaintasun operazionalak, enpresaren finantza-balantzeetako emaitzak hobetzeko, enpresaren jarduerak gauzatzeko moduari egiten dio erreferentzia. Martxoaren 11n, asteazkenean, IDEKO, TESA edo Indar Electric erakundeek "Negozioaren emaitzetan eragina duten bikaintasun operazionalako enpresen kasuak" jardunaldian hartuko dute parte. Doako jardunaldi dibulgatzaile bat izango da, eta interesa duten guztiek gerturatu ahal izango dira. Jardunaldia Asenta Management Consultants eta Mondragon Unibertsitateak antolatu dute, eta martxoaren 11n, asteazkenean, egingo da MONDRAGON UNIBERTSITATEAREN Orona Ideoko campusean, 09:30etik 13:00etara.

### **Esperientzia praktikoak**

Jardunaldia aurkeztu ostean (09:30), Asenta Management Consultants enpresako Jose Ignacio Erausquin bazkide zuzendariak eragiketen zuzendaritzak duen funtzioaren inguruan hitz egingo du gaur egungo enpresen testuinguruan.

10:00etan, Ideko enpresako Ibon Serrano jaunak Lean Manufacturing ereduaren aplikazioa azalduko du ekoizpen diskretuko inguruetan. Gero (10:40), Iñigo Ortega TESA Taldeko zuzendari industrialak parte hartuko du, eta hark bere enpresaren Lean esperientzia azalduko du. Bestalde, Ibon Zarrabeitia Indar Electric enpresako ekoizpen-zuzendariak nortasuna eta konpromisoa azalduko ditu, balioa sortzeko eguneroko kudeaketaren oinarri gisa.

Zentzu horretan, Mondragon Unibertsitatearen Eragiketa Industrialen Zuzendaritza Masterra ezagutaraziko da (12:20) Javier Guallar graduondo horren koordinatzailearen aldetik. Haren edukia eta metodologia dela-eta, Estatuan izaera aitzindaria duen masterra da, eta jardunean dauden eta eragiketen edo kudeaketa industrialaren esparruan esperientzia egiaztatua duten profesionalei xedaturik dago. Jardunaldia amaitzeko, iritziak azaltzeko mahai-inguru bat egingo da bertaratuen eta jardunaldiko txostengileen artean.

